

Euri gorriaren azpian



Asier Serrano

Bilduma: Narratiba, 153

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 164

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-09-26

ISBN-a: 978-84-9109-979-6

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

19,00 €



Paperezko zeru zabalera begiratu, eta hodeiek markatzen duten mapa gero eta puztuago eta hurbilagoan iraganaren ekaitz perfektu gorria nola lehertuko den kontenplatu. Hogeita bost urte atzera, estatu kolpea hirira heldu zen egunean, ezagutu zuen idazletzatik erretiratu den emakumeak gizon antzezlea. Ordutik, zazpi urteko diktadura, eta hemezortzi urteko ustezko demokrazia. Orain, emakumea hirira itzuliko da, hilzorian den gizonaren enkargua betetzera. Emakumeak abandonatu zuen sustraietara barne bidaia da kontakizuna. Bazterreko biztanleen bisaian ikusiko du alegiazko estatua nola aldatu den. Fikzioa beti izango da tokatu zaigun garaiko errealitate gordinena kontatzeko tresnarik zehatzena.

Asier Serranok estilo xehea du, argia, herdoiltzen ez dena. Poesiak zeharkatzen du kontakizuna, narrazio ezin bikainagoa eskaintzeko irakurleari. Istorio bortitza da, lohitsu, baina dena du ederretik. Asier Serranoren unibertsoaren ataria da *Euri gorriaren azpian*; nobela honek sortzen duen liluraren aurrean ezin dira begiak itxi.

Asier Serrano



Asier Serrano Lasa (Eibar, 1975) euskal idazle eta musikaria da. Literaturan ia genero guztiak ukitu ditu. Bi narrazio-bilduma idatzi ditu: *Mari Basajaunaren eremuan* (2001) eta *Hoteleko kontuak* (2001). Horiez gain, hiru nobela argitaratu ditu: *Eskuetan mapak* (2007), *Erløjugilea* (2009) eta *Abisalia* (2014). Poesian ere badiu zenbait liburu: *Bada hiri gorri bat* (1997), *Picassoren zaldia* (2007), *Hiri gorritik* (2010), *Desterratuaren piztiarioa* (2011), *Ate osteko itzalak* (2016), *Linbotarrak* (2016), Euskadi saria jaso zuena, eta azkenik, *Denen mina da nirea* (2018). Literaturaz gain, musikagintzan, Lorelei taldeko gidaria izan eta gero bakarkako lanari heldu zion eta hiru disko utzi zituen: *Ez esan inori*, *Gerrari bai* eta *Hoteleko kantuak*. Donostiako Irale irakastegiko irakaslea da egun.